



Trontzatzeko makina tolesgarria

Trontzatzeko makina tolesgarria abiadura handian funtzionatzen duen ebakitze tresna bat denez eta makina arriskutsuenetako bat denez, beharrezkoa da segurtasun neurri bereziak hartzea, hura erabiltzean arriskua murrizteko.

Dokumentu honen xedea da trontzatzeko makinarekin lanak egiteko arauak eta jarraibideak ezartzea, segurtasunerako egokiak diren baldintzetan.

Deskribapena



Hautapen eskakizunak

Kontuan hartu beharreko dokumentazioa:

Dokumentazioak eduki beharrekoak:

CE marka.

CE adostasun adierazpena.

Fabrikatzailearen edo hornitzailearen erabilera eta mantenimendu jarraibideen eskuliburua, merkaturatzen den herrialdearen hizkuntzan. Tresna erabiltzean, kontuan hartu beharko dira fabrikatzaileak emandako jarraibideak eta argibideak.



1215/1997 EDren zehaztapenetara egokitzearen egiaztapena (lan ekipoak).

Aldez aurreko egiaztapenak. Makinaren egoera

Trontzatzeko makina tolesgarriak kontserbazio egoera egokienean egon beharko du, eta gaizki edo pitzatuta dauden diskoak konpondu edo aldatu beharko dira.

Konexio elektrikoek egoera onean egon behar dute.

Kendu doitzeko tresnak edo giltza finkoak, tresna elektrikoa konektatu baino lehen. Pieza birakari batean jarritako tresna edo giltza batek lesioak eragin ditzake, martxan jartzean.

Egiaztatu beti tentsio hargunea tresnaren ezaugarrien xaflan adierazitako berbera dela (230V edo 240V-ko tresnak 220V-ra ere konektatu daitezke).

Makinaren konexio larakoak erabiliko den korrante hargunerako balio behar du. Ezin da larakoa inola ere aldatu. Ez erabili egokigailurik lur hargunea duten gailuetan. Dagozkien korrante harguneetara konektatutako larako egokiak erabiltzeak txikitu egiten du deskarga elektrikorako arriskua.

Makina konektatzen den instalazio elektrikoak etengailu magnetotermikoa eta disjuntore diferentziala eduki behar ditu, egoera egokienean.

Kontuz gailua ustekabeen abiaraztearekin. Ziurtatu gelditze posizioan dagoela korrante hargunera konektatu aurretik.

Langileak bete beharreko baldintzak

18 urtetik gorakoa izatea.

Osasun zaintzari dagokionez, lanpostuan aritzeko gaitasun agiria edukitzea.

Prestakuntza espezifikoko egiaztatua.

Tresna erabiltzeko baimena.

Erabilera

Erabilera jarraibideak

Tresna erabiltzean, kontuan hartu behar dira BETI fabrikatzailearen erabilera eta segurtasun jarraibideak. **Eranskina.**

- Lana egin ebaki beharreko material motari dagokion aitzinamendu egokian eta moderatuan.



- Egiaztatu ebakitze gunean ez dagoela harririk, iltzerik, torlojurik, etab.

Lan ingurua

Eduki lanpostua garbia, ordenatua eta ongi argiztatua.

Lana egin oinarri sendo baten gainean, eta mantendu oreka beti. Horrela, hobeto kontrolatuko duzu erreminta elektrikoa, ustekabe bat gertatuz gero.

Ez erabili erreminta elektrikoa leherketa arriskua dagoen tokian; hau da, erregai likidoa, gasa edo material hautsa dagoen toki batean. Erreminta elektrikoaren txinpartek material hautsa edo lurrinak sutu ditzakete.

Ez lan egin egoera klimatologiko desegokian (euria, elurra, etab.). Kasu horretan, estali makina material iragazgaitzez.

Prebentzio alderdi espezifikoak

Hautatu material bakoitzerako disko egokia.

Ez utzi trontzatzeko makina tolesgarria euripean eta leku hezeetan.

Egin mantentze-lan egokia, eta egiaztatu etengailua ondo dabilela.

Ez atera entxufea kabletik tira eginez.

Deskonektatu entxufea lana amaitzean.

Ez egin presio gehiegi tresnan. Ez jarri gainkargarik tresnaren gainean.

Ipini ondo oinak, oreka ez galtzeko.

Ez erabili tresna atmosfera leherkorretan.

Ez erabili arropa nasairik.

Kontuz ibili erreminta ezustean martxan jar ez dadin

Norbera babesteko ekipamendua

Langileak erabili behar ditu:



Segurtasun eskularruak, eskuak irristatu ez daitezen eta ebakiak txikiagoak izan daitezen.

Arropa estua eta egokia.

Belarri babesak

Erabili babesteko betaurrekoak edo pantaila, proiektatutako partikulak saihesteko.

Erabili hautsaren aurkako maskara, giroan hauts asko dagoen lekuetan.



Prebentzio mantenimendurako gida

Bete itzazu fabrikatzailearen erabilera eskuliburuan jasota dauden mantenimendu eta konponketa jarraibideak eta/edo abisuak.